



# EUSKAL ESKOLA NOLA EMATEN DEDAN

*Atseg. nekin ager-arazten dugu hemen Aita Villasante Euskal-  
zainak, IKAS biltzarrean egin zuen mintzaldia 1961-eko burulan*

Ezer gutxi egin da orain artio esparru ontan, oker ezpa-  
nago. Banaka batzuk ba-gabiltza, bai, or-emen, euskal esko-  
lak ematen. Bakoitza bere aldetik, al duan bezalako, bere  
senak edo bezezko argiak adierazten dion eran, bidea ezpai-  
tago urratua. Norberak urratu bear edo gorritu bear lurra.  
Biltzar onetan bakoitza bere aztura edo esperientzi apurraz  
mintzatuko balitz, ezlitzake bentaja makala izango danon-  
tzat Bakoitzak bere duda-mudak, okerrak eta zuzenak,  
utsak eta bai beteak ere jakinaraziaz, argitasun pixka bat  
eman genezaioke alkarri. Erdi aztamuka, itsuan, bata bes-  
tearen berri jakin gabe ibiltzea, ezta on. Nere lantxo onetan  
nik lainoki azalduko dizuet nere eskolan egiten dedana.  
Nere argi xoilla eta jakintza apurra det gidari bakarra  
Orregatik argi-eske natorrela esatera eztut herabe.

## **Nolakoak ditudan nere ikasleak**

Nere euskal eskolako ikasleak 13-14 urteko mutikoak  
dira. Praillegaiak, Arantzazuko Kolejioan. Irugarren kur-  
soa egiten ari diranak. Beraz, nere eskuetara datoztenerako  
ba-daramazkite bi urte (eta batzuek iru ere bai) kolejioan.  
Euskaldunak dira denak (nik dauzkatanak; besteak beste  
batekin ari dira) : beraz, ba-dute oiñarri balio aundiko bat,  
aintzat artu bear dena. Azia sortu bearrik eztago : ba-da  
zerbait. Ala ere, oien euskaltasunean mailla asko aurki-

tzen direla ere esan bearra dago. Batzuen euskaltasuna nai-ko gizen eta mardula izan oi da, besteena berriz askozaz aulagoa. Batzuek euskeraz besterik eztute egin beren etxe eta errietan Arantzazura etorri bitartean; beste batzuk, berriz, erdizka bakarrik izan dira euskaldun, eta beste batzuk, azkenik — Tolosa, Mondragoi, Durango, Zumarraga, Gernika, Donostia, Ernani ta beste zenbait irietatik datozen askotxo — beren euskera azkenetan, il zorian daukatela etortzen zaizkigu.

Gaiñera 11 urtekin etortzen dira ume oiek kolejiora. Eta 11 urteko aurrak eztu iñungo izkuntzarik menderatzeko betarik izan. Euskera bere osotasunean ezin izan dute berenganatu, ezta euskaltasun mardula darioten oiek ere. Oiek ola, kolejiora etortzearekin euskal-landarea oraindik makaltzenago zaie. Kolejioko bizitza guztia erderaz egiten baita. Ikasgarri oro erderaz edo erderaren bidez ematen zaie. Eskoletan eta eskoletatik kanpo erdera da nagusi. Euskeraz itzegitea etzaie galerazten, ori ez, baiño giroa falta, ori da kontua. Eta aurrak (eta aur eztiranak) inguruko giroak moldatzen ditu.

Euskerarentzat batere girorik eztagoela esaten ere ezlitzake egia, ordea. Maiz entzuten dituzte euskerazko predikuak elizan, beren kapillako kantuak ere sarritxo izaten dira euskeraz; euskeraz kofesatu nai badute, ba-dute ortarako aukera, euskerazko teatroa ere noizean bein ikusten eta egiten ere dute, udako barkazioetan beren etxeetara joaten dira eta orrekin berriz bizkortzen zaie euskerarako erretzasuna ta gogoia, baiña ala ere guzti ori ez izan aski, nunbait.

### **Euskalkiak elkarrengandik ez urrundu**

Nere ikasleek eztute denak euskera berdiña, gaiñera, eta orrek ere ematen dit buruauste pixka bat. Geienak dira gipuzkoar eta bizkaitar, gutxi batzuk napar eta arabar euskaldunak. Mintzoz bi euskalkitan bitaratu ditezke guziak : giputzak (naparrekin) alde batera, eta bizkaitarrak (arabarrekin) bestera. Nik, ordea, eztitut nere ikasleak orrela bi saldotan bereizten, beste irakasle batzuek oi duten bezala. Iruditzen zait obe dela denak elkarrekin eskolatzea, ortara elkarren berri jakiteko era izan dezaten eta beste dialektuaren ezagutzaz berea aberastu dezaten. Ba-dakit beste eskola-emaleak bestela egin oi dutela : au da, bizkaitarre-

kin talde berezi bat osatzen dute ta beren euskalkia bakarrik erakusten diete, eta orobat gipuzkoarrei. Nik talde itxiegia egin eztezen, euskera-barruan esia gogortzen ibilli ezatezen, naiago det beste bidea. Ori bai, bakoitzaren dialektua errespetatzen det, baiña eskolan nola dauden danak naasturik, beti entzuten dute bietatik. Au ere esan bear det, nere burua zuritzeko : nere eskolara datoztenerako mutiko oiek euskerazko bi kurso egiñak dirala eta aurreko urte oietan euskalkiz berezita eukitzen dituztela. Jakiña, gauza guztiak dituzte alde onak eta bai txarrak ere, eta nik egiten detan batasun ortatik ere sortzen da naste pitin bat. Bizkaitarrak batez ere, gipuzkera enzuten dute-lako maizago, azkenean beren idazlanak egiten dizkidate erdi gipuzkeraz, erdi bizkaieraz, bai aditza eta bai beste zenbait gauza ikaragarri naasturarik.

#### **Euskerazko eskola, euskeraz eman bear da**

Asteroko klase bakarra du euskerak gure kolejoan. Ikusten dezutenez, gauza gutxi. Ba-degu asmoa geiago jar-tzeko, baiña bitartean degunakin konpondu bear.

Eta ba-noa eskola ortan zer egiten dedan azaltzera. Len-bizi, eskola ori euskeraz eman. Nere ustez ajola aundia du orrek. Batzuetan esplikazio bat obeki uler dezaten erderara lerratzen naizela ere aitortu bear det, baiña gaiñerakoan eskola ontan euskeraz egiten saiatzen naiz. Obeki esan, euskeraz egiten eta eragiten. Eman bear diran esplikazioak eta ikasgaiak ere euskeraz eman. Esan dedanez, garrantsirik aundiena du orrek. Euskeraren klasean izkuntza onen Gramatika xoilla ikasten emango bagenu denpora, ta ori bera ere erderaz egingo balitz, ez genuke klase ortatik probetxu aundirik aterako izkuntza bizia mutiko oien arimetan indar-tzeko.

Izkuntza bat ikertzea, analizatzea — Gramatikak egin oi duen bezala — ezta berez aski itz egiten ikasteko ta are gutxiago itz egiteko erretzasuna emateko. Izkuntzak, biziak izango badira, ezpaitan bear dira erabilli, jardunaz ikasten eta indartzen dira gogoan. Eta ori eskolan eta eskolatik kanpo ere egin bear den gauza da. Orrekin eztet esan nai Gramatikaren ikastea alperrikoa denik, ezta urrik ere. Beti izango zaigu mesedegarri, baiña izkuntza bat analizatzen jakitea eta itzegiten jakitea bi gauza dira, oso ezberdiñak.

Iztun jatorrak arkitzen ditugu izkuntza denetan gramatika-izpirik eztakitenak, eta alderantziz gramatikolari ta ikeretzale trebeak, izketan total-motelak diranak. Ederki dio Lafitte jaunak Lacomberi buruz egin-mintzaldian diona, alegia : euskera iñoiz galduko bada, eztela beste ezergatik galduko « mintzatzale eta izkiriatzale faltan » baizik. Engaiñu bat da pentsatzea gramatika ikasiz, beste gabe, ikasi oi dela izketan, bai zera ! Gramatika, izkuntzaren analisi bat besterik ezta eta orrek mesede egiten du noski eta beti laguntzen du izketan ikasteko, baiña berez eztu ortaraiñoiko indarririk.

### **Zeri eman bear zaion leen-tokia euskal eskolan**

Eraz, ba-degu emen auzi bat garbitu bearra. Euskerazko eskolan zeri eman bear ote zaio leen-tokia : gramatika ikasteari, ala itzezin, irakurri eta idazteari ? Galdera oni ezin diogu eman erantzupen bat alde guziz osoa eta kasu guztietarako balio lezakena. Ez aaztu ba nere erantzupen ontan nere ikasleak ditudala begien aurrean eta esan det oiek nolakoak diran : alde batetik erdi aurrak, eta bestetik asteen beingo klase bakarra degula. Alakoentzat bada, obe da, nere ustez, irakurri ta batez ere idazteari leen-tokia ematea.

Auxe da Rodolfo Lenz jaunaren iritzia ere. Irakurri beza, nai duenak, zer dion jaun onek bere liburu famatu batean (1). Ikaslearen eskuetan gramatika bat jarri bearrean, irakurgai bat jartzea dela obe dio, eta guztiz ere aurrei ipuiak eta istorioak kontatzea, diktadua eta idazlanak egin-araztea, ta abar.

Ala ere gramatika eztet erabat baztertzen. Ain zuzen, nere euskerazko klaseetarako atera nuen liburuxka txiki bat : « Euskal Gramatika Llabur » : gauza gutxi da, daki-zutenez. Bertan datorren gramatikako teoria apurra azaltzen degu klasean, ta euskeraz azaldu ere, liburuxkan datorren bezala. Gramatikari gramatika deitzen diot, eta ez naiz sartzen terminologi arrotz eta berriketaritan.

Baiña gramatikako teoria azaltzeari eztiot bein ere leen-tokia eman nere eskolan. Alde batetik erdi-aurrak dire-

---

(1) *La oración y sus partes*. Batez ere *Valor de la enseñanza gramatical*, p. 1 n.

lako oraindik nere ikasleak eta ikertze idor batetik ezlutekelako nere ustez iguiña besterik aterako euskerarentzat. Bestetik, berriz, astean klase bakarra izanik, bearrenera jo bear degulako. Eta bearrena zera iruditzen zait, pratika, jarduna, batez ere idazten pixka bat oitu eta trebetu ditezela.

Aditza bera ere azkeneko urte auetan eztiel azaldu, denpora-ezagatik eta baita ere bildur pixka bat ematen didalako. Bildur naiz, alegia, aditza buruz ikastera beartzen baditut, ikasleek euskerari gorrotoa ez ote dioten artuko, lan luzea, zailla eta aspergarria egiten baita. Ba-dakit aditzaren ikastea analisi bidez asko erreztu ditekela bere sistema konpreni araziaz, baiña ortarako gazteegi dira nere ikasleak eta lan ori geroko uzten det, urrengo kursoetan egin dedin. Ziñez, astean beingo klase bakarrarekin ezin diteke mirari aundirik egin. Beraz, gramatikako, zenbait gauza errez ta axaleko ematen ditugu eta gero auxe : idazlanetan jo ta ke aritu : oni ematen diot nik leen-tokia nere eskolan.

#### **Idazlanak : zer-nolakoak**

Idazlanak eskatzen dizkiet ba erruz ta ugari. Eta idazlan oiek aurretiaz eta arduraz prestatu bear izaten ditut. Lendabizi, gaia autatu. Geienetan ipui, istorio edo gertaturren bat izaten da, mutillen gogoko izan oi dan gaien bat. Ipui, gertaera edo delako ori neronek kontatzen det klasean, euskeraz jakiña, gero oibeltzean jartzen ditut idazlan ortarako ondo etorri ditezken zenbait itz, esaera edo itzuli, eta nai duenak libre du lagungarri oiek bere paperetara aldatzea. Gero urrengo klaserako agintzen zaie gai ura nork bere kuadernoan eta bere erara idatzirik ekartzeko. Gero kuaderno guztiak bildu eta nere gelan aztertzen ditut banabanaka, makurrak salatuaz eta bakoitzari oarren bat jarriaz, naiz dala alabantzazko itzen bat ondo egindako lanaren pozgarritzat, naiz zabar ta ajolakabeak astinduaz, denerarik egon oi da ta. Urrerigo klasean kuaderno guzien kritika egiten det. zer dagoen gaizki ta zer ondo danen aurrean esanaz eta makurrik nagusienak agirian zuzenduaz.

Jaunak, lan onetan ematen det nik euskerazko nere kursoa. Idazlanak egin arazten dizkiet ikasleei, nere ustez ori dalako berentzat probetxugarriena. Eta baita gustagarriena, ere. Mutikoak egille izan nai du; zerbait egiten ari dala oartzten danean, orduan gustora ari da. Ikasgaiak buruan

sartze ori, pasivo-kutsua duelako-edo, aspergarri zaio eta eztu bere egintza-gosea asetzen. Jakiña, nik ba-dakit eta ondo ikusten det gramatika geixeago balekitez eta batez ere aditza menderatua baluteke, askoz obeto egingo lituzketela beren idazlanak, baiña zer nai dezue ! dena egiterik eztegu ta al dana egin bear.

### **Itzulpenak euskeratik erderara ta erderatik euskerara**

Itzulpenak ere egiten ditugu noizean bein, bai euskera-tik erderara eta baita erderatik euskerara ere, ta oiek guziak ere eskribuz. Euskeratik erderara egiteko, « Kataliñen Go-goetak » artu izan ditut oiñarriztat azken urte auctan : eta itzulpen oiek ere aurretiaz eskolan xeatzen ditut, autatu-tako zatia irakurri araziaz, agiri diran illungunek eta ozto-poak argituaz, ta abar. Et berdin, ta arrazoi geiagorekin egiten degu guzti ori, erderatik euskerara itzultzeko agin-zen dietenean.

Ikusten dezutenez nere kursoko xede ta elburu nagusia auxe izan oi da : mutikoak euskeraz irakurtzen eta idazten oitu eta trebetu ditezen. Gramatikako teoria erakusteari ere zerbait ematen diogu, baiño gutxi, oso gutxi, beste orren aldean.

### **Idazlanetan maizenik gertatzen diran makurrak**

Nere ikasleen idazlanetan geien azaltzen diran utsak ere esango dizkizuet. Leenbizi, « z » eta « s »-ren naastea. Laun aundia izaten det, eta geienetan alperrik, bi letra auk jator erabiltzen irakasten. Berdin jartzen dizute « ezan », « ikazi », « zeme » « z »-kin, ta abar. Ori gertatzen da noski, dena « s »-kin esaten dutenen artean. Ba-dakitez itz askotzo « z »-kin idatzi bear dirala eta erdi itsuan barreatzen dute letra ori nunai. Gauza bera gertatzen da « tz » eta « ts »-kin ere : askok ezpaitituzte bereizten bi soiñu oiek.

Gero « aitari ikusi diot », « aita ikusi det » esan bear-rean, « esan naute » « esan didate »-ren orde, « nau » eta « dit »-eren arteko naastea : orrelako makurrak ere egu-nero azaltzen dira eta izaten det naiko lan gauza oiek tajuz esaten erakusten Azkenerako jartzen dira.

Kontrario edo laburpen asko ere egiten dituzte, tokian tokiko ao-izkeraren arabera. Urte guztia ematen det gauza bera erakusten, alegia, norbere txokoko usuario bereziak alde bat utzirik, euskera literarioaren formei lotu ditezela,

eta itzak batez ere oso-osorik, diran bezala idazten ikasi bear dutela, olako kontrazio gabe. Milla aldiz esaten diet ortarakoxe dela euskerazko eskola : bestela, bakoitzak bere erriko erara idaztea zillegi balitz, ezgenukela euskal eskolaren bearrik. Egia esateko, eztet nere prediku guztiakin frutu aundirik nabaritzen.

Dakizutenez, bizkaitarrek kontrazio ikaragarriak egiten ditugu : « ein biot » = « Egin bear diot », « ein bistazu » = « egin bear deustazu », ta abar. Ezta gauza erreza mutiko bati buruan sartzea eztituela gauza oiek berak bere errian entzun ta ikasi dituen bezala idatzi bear, baiñan eskolan erakusten zaion gisa. Klase geiago balego eta euskal liburu geiago begietan barrena sartuko balitzaio, ezlitzake ori batere zailla izango, baiña daukagun eskola apurrakin guxi lortzen da.

Gipuzkoarrek ere egiten dituzte kontrazioak eta itzen aldaketak beren erara. Adibidez, « etorri zaitetz etxea », « etxera » esan bearrean, « Segurakok » = Segurakoak-en orde, edo « d » ta « r » naasi : idi = iri, uda = ura, edan = eran, bide = bire, edo « ebi » = euri-ren orde, « elbi » = « euli »-ren lekuan, ta abar. Labur, bakoitzak bere txokoan esan oi dan bezala idatzi oi du, eta emendik naaste ikaragarria sortzen da batasunaren kaltetan. Maisu gaixoak ba-du naiko lan uskeri oiek erakusten, bein eta berriz, gau eta egun ta etengabe gauza berak esaten eta birresaten ta oraindik ordia alperrik. Eta liburuetan datorrena, kontrazio ta aldaketa oiekin idatzita baldin badator, milla aldiz okerrago. Orduan liburua maisuaren etsai biurtzen baita. Orregatik, orrela idatzitako libururik eztet ikasleen eskuetan ikusi nai, alde ortatik kaltegarri zaizkigulako. Euskera idatzia- ren batasuna pixka bat zituko bada eskolan, gauza auei kaso gitea derriorrezkoa da, nere ustez.

### Irakurtzeak duen ajola

Euskeraz irakurtzen oitu eta zaletu ditezen : orrek ere garrantsirik aundiena du, dudarik gabe. Begietan barrena sartzan dan letrak an irauten du, an gelditzen da tinkaturik, bere itxura edo soñieko berezi ortan mamitua eta gogortua bezala. Zoritzarrez eztute izaten zaletasun aundirik ortarako. Liburu batzuk ematen zaizkie, berekin euki ditzaten : « Kataliñen Gogoetak », Zugaztiren meza-liburua,

Kristau Dotriña, Fernando Amezketarra, Garoa, Kresala ta abar. Karera guztian zer euskerazko liburu bakar bat ikusi eztuenak, esan gabe dioa zer atzerapena ta moztasuna izan bear duen gero euskera erabiltzeko. Eta orrenbesteraño ezpada ere, asko beintzat oso nagi izaten dira, ajolakabe eta txepel; eztute sentitzen gogo aundirik euskerazko gauzarik irakurtzeko. Aitortu ere egin bear da oso zail eta aldapa gora egitei, zaiela euskeraz irakurtzea. Nere iritzi apalez mende ontan zabaldu dan joskera berri onek asko zaildu du euskeraren irakurtzea; ta ortaz gaiñera, itz berriekin badator liburua, orduan akabo. Ori azalari bakarrik nago-kiola; baiña azalez gaiñera, mamiak ere bear du izan ego-ki, esan nai det, ernagarria, mutiko bati gustatuko zaion gisakoa. Bestela alperrik gabiltza. Aita Felix Bilbaoren « Ipuin-Barreka » liburua, nik ikusi dedanez, pozik irakur-tzen dute mutikoek, naiz ta bizkaieraz egon ta iñork bul-tzatu gabe; ez bizkaitarrek bakarrik, gipuzkoarrek eurek ere bai, eta ori da noski gaiak berak tiratzen ditualako, barruko gatzak, piperrak eta bizitasunak, alegia. Baiña ola-ko gutxi degu.

#### **Ikaskizunen bat euskeraz eman**

Aurtengo udaran izan degu Arantzazun euskal biltzar bat, gure artekoa, euskerari buruzko eginbearrak aztertu eta erabakitzeko. An asmo asko azaldu ziran : euskerari toki geiago eman bear zaiola gure karreran, klaseak uga-ritu egin bear dirala, ta abar. Ikusiko degu asmo oiek egi biurtzen ote diran (1). Aala balitz, klase geiago izanik, au-ker a ohea izango genuke gramatika erakusteko, irakurtzeari geiago emateko, ta abar. Beste zerbait ere esan zan Biltzar artan, nere ustez ajola aundia duena : asignaturren bat euskeraz eman dedilla. Euskera eztedilla izan xoilki karre-ran ikasten diran izkuntzetatik bat, baiñan erabilli dedilla beste zerbait, beste gaien bat irakasteko bide edo tresna bezala. Ai, ori lortuko balitz ! Euskera mutikoen gogoan indartzeko eztet nik ikusten bide oberik. Orain arte eztegu olakorik egin eta aitortu bear da gaiñera eztala gauza erre-za. Ba-dira gure artean euskeraz tutik ere eztakitenak, arras erdaldun diranak, naiz Euskalerrikoak izan, eta beste ba-tzuk Gazteleerrikoak ere bai. Egia da oientzat ere ematen

(1) Batzar orrek eskatu zuanari erantzunaz, astean bi eskola eman zaizkio euskerari kolejioko kurso denetan.



dirala euskal eskolak, baiña, jakiña, oso gutxi da ikasten dutena. Nolanai ere, besteen parera ez tira irixten, eta ezberdintasun ori kolejioan dagoan bitartean, ezta ikusten tajuzko biderik asignatura bat euskera dala bide irakasteko. Gaiñera, liburuak ere nun dira ortarako ? Eta irakasleak ? Esan nai det : irakatsi bear den gaia ondo dakitenak eta gai ori euskeraz emateko gertu diranak ? Parkatuko didazute aspaldi nere buruari egiten diodan galdera bat emen azaltzen badet . Euskaltzaindiak jarririk dauka sari bat, urtero eman oi dena, baiña sari ori nobela eta teatro lanean bakarrik banatzen da. Eta auxe da nere galdera : Il edo biziko gauza baldin bada eskola euskerarentzat, zergatik ez tira egiten edo egiñarazten liburu batzuk eskola-gaiezaz, jakintza ta irakaskintza gaiezaz ? Ba al degu lan bearragorik ?

#### **Broussain zenaren asmo bat**

« Euskera », Euskaltzaindiaren aldizkarian, Azkuek agertarazi zuen Broussainek berari igorritako gutun bat (1). Euskera salbatzeko egin beariko litzakenaz ari da Broussain idazki ortan. Zuzen ikusten zuan nere ustez euskaltzain hazpandarrak kontu ontan. Ara zein litzaken lehenbiziko urratsa, bere iduriz : bi aztetxe edo kolejioko sortu, bat mutilena, bestea neskatxena, aztetxe oietan Euskalerriko gazteri autatuena eskolatu zedin, eta jakiña, aztetxe oitan biziera osoak erabat euskaldun izan beariko luke : eskolak, jolasak, eskolatik kanpoko bizitza guztia, alegia. Bizitzarako bear diran beste izkuntzak ere irakatsiko lirake, noski, baiña bigarren edo irugarren izkuntzak bezala, eta orrek ezlio ke batere kalterik egingo euskerari. Aztetxe auetatik irtendako gazte oiek emango lioteke gero ospea ta prestutasuna euskerari jendearen aurrean. Jende xea, euskera aundiki-soiñekoz jantzia ikustean, berak ere gogoz eutsiko lioke gure izkuntzari.

Ametsak, esango didazute. Bai, gaurkoz ametsak dira. Baiña ezin ukatu auxe izango litzakela auzi onen oso-osoko garbitzea. Gure gazteak nola eskolatzen ditugun, alakoa izango da gure izkeraren geroa.

Aita Luis VILLASANTE O.F.M.  
Agredan, 1960-ko Iraillean.

---

(1) *Euskera* XI (1930) 229-238.